

ARNALDO OTEGIRI ELKARRIZKETA

“Biktimez hitz egitea baino haiekin egotea da ezinbestekoa”

Kataluniako *La Directa* astekariak egindako elkarrizketaren zatirik esanguratsuenak ekarri ditugu, bi hedabideon arteko elkarlanari esker. Abuztuaren 12an atera ziren kartzelatik eskutitz bitartez helarazitako galderen erantzunak. 2009tik preso den Otegik hausnarketa sakona egin du gai ugariri buruz.

| GEMMA GARCIA FÀBREGA |

Zergatik uste duzu preso zaudela?

Kondenak izaera politikoko kontsiderazioei soilik egiten die men, atzekoz aurrera garatutako sententzia da. Lehendabizi, amaierako xedapena argitu zen —kondena— eta ondoren, juridikoki argudiatzen saiatu zen. Gure *deliturik* larriena ETaren indarkeria armatua euskal ekuazio politikotik desagertzea planteatu eta lortzea izan zen. Beste era batera esanda: gure delitua Estatuarekin genuen konfrontazioa boxeoko ringetik xake taulara igarotzea izan zen. Kontuan izanik Guardia Zibilaren operazioen bat xakeko konparaketekin bataiatua izan dela, argi dago Estatuak boxeoko eskularruekin jokatu nahi duela xakean. Eta hori, ezinezkoa da.

Zein izan da kartzela barruan igarotako unerik gordinena? Eta kanpoan zeundela?

Azken urte hauetan nire amaginareba eta lagunak joan zaizkit, baina zalantza barik, nire aitak jasandako miokardio bihotzekoa —gerora osatu da—, eta guzti guztiaren gaitetik, nire amaren heriotza izan da. Publikoki idatzitako agurtzeko gutunean adierazi nuen: nire amak sei urte moko zituenean, bere anaia El Duesoko kartzelan ezagutu behar izan zuen, egun kartzela berean, nire kausa berberagatik, preso dago Rafa Díez kidea. Laurogei urte geroago, gure ama ni aske ikusi gabe hil da, eta bizitza guztian



Preso sartu aurretik 2009ko maiatzean Otegi ARGIAk egindako elkarrizketan.

DANI BLANCO

desira izan zuen hura ikusi gabe: preso guztien askatasuna. Horixe izan liteke Estatu espainiarraren historia demokratikoaren laburpen egokia. Kartzelatik kanpo ere une mingarriak bizi izan ditut arlo pertsonalean, lagun eta kideen heriotzak. Eremu politikoari dagokionez, Madrilgo 11-M osteko atxilotetak, eta porrot egindako negoziazio prozesu bakoitzaren ondorengo heriotza eta frustrazio ondorioak, euskal eta espainiar gizarteetako sektore guztien sufrimendu eta oinazea izan dira unerik zailenak niretzat.

Estatuak behin eta berriz errepikatu du indarkeriarik gabe *guztia posible izango litzatekeela*. Baina euskal agertoki berriari, immobilismoz eta errepresioaren logikez erantzun dio, EH Bilduren legalizazioaren onarpena salbu.

Lehenik eta behin zehaztapen txiki bat: EH Bilduren legalizazioa ez zen inondik inora kontzesioa izan, sinpleki, estrategia aldaketarekin eraikitako indar korrelazioek ezinezko egiten zuten Estatuak beste edozein erabaki gauzatzea. Hori argituta, ziur nago Bilduren legez kanporatzea PPren agendaren barruan zegoela: ETaren borroka armatuaren behin-betiko amaierak eta nazioarteko komunitateak egindako *iradokizunek*, plan hauen zapuztea ekarri zuten. Jarrera honen mamia Estatuak bere DNA politiko eta kulturalaren baitan daraman zerbaitean datza: kultura demokratikoaren gabeziaren aurrean, mehatxua eta indarra besterik ez dira gelditzen, boxeoko ringarako bikainak. Baina, xake jokoa, eskularruak lekuz kanpo daude, eta berauek jantziz gero zeure izaera *antidemokratikoa* begi-bistan gelditzen da. Horrela, *den dena posible da indarkeriarik gabe* leloa agerian gelditu da zer zen benetan: gezur handia, falazia bat.

Zergatik Espainiako Gobernuak ez du piezarik mugitzen?

Izaera errepresibodun inizatiba horiekin guztiekin gobernuak xake taula irauli nahi du, eta artifizialki boxeoko ringa birsortu. Ahalik eta gehien luzatu nahi du lehenagoko

eskenatokiaren itzala eta logika. Izaitez, uste baitu alternatibarik baduela logika *antiterroristan* (ringa), egungo eskenatokian (xakean) aldiz, ez dauka. Horrexegatik, parez pare dagoeneko boxeolaririk ez daukanean, artifizialki sortu ohi du halakorik, atxilotuz, kartzelaratuz eta informazioa manipulaturik. Sinpleki, ez baitu inongo alternatibarik. Ondorioz, denbora irabazten saiatzen da, beldur baita, eta bere kezkarik garrantzitsuena, Euskal Herriak Kataluniak hartutako bideari ekitea baita.

1998az geroztik espainiar Estatuak *dena da ETA* aitzakiapean benetako laborategi antiterrorista garatu zuen. Zer nolako etekinak lortu ditu eta egun oraindino lortzen ditu estrategia haren ondorioz?

Hura testuinguru ideala zen Estatuarentzat. Independentismoaren kriminalizazioa eta gatazka politikoa afera antiterroristara murrizteko etengabeko saiakera ahalbidetu zion estrategia globala eraiki zuen. Horrez gain, nazioarteko komunitatearen aurrean, zerabilen maila

“Estatuan gaitzespen handiena sortzen duen lehendakaritzarako hautagaia ni izatea litzateke gehien poztuko eta harro sentiaraziko nindukeena”

errepresiboaren aurrean inpunitate handia bermatzen zion. Eta zein zen aipatutako estrategia errepresibo globala oinarritzen zen arrazoirik funtsezkoena? ETaren indarkeria armatuaren existentzia, aparteko koartada zen. Eta guk zer egin genuen? Koartadarik gabe utzi genituen. Oraindino, zalantzarik bala da gu kartzelaratu izanaren benetako arrazoiei buruz?

Etorkizunean zein ikuspuntu eta blokeoarekin amaitzeko zein agertoki posible aurreikusten ditu Arnaldo Otegi?

Denborak emandako esperientziak ondorio honetara eramanez: Estatuarentzat Euskal Herriaren edo Kataluniaren identitate nazionala eta euren erabakitzeko eskubidea errekonozituko dituen hitzartutako gatazkaren konponbidea, estrategikoki, geure nazioen independentzia bezain onartezina da. Geure estatu propioa eraikitzen gidatuko gaituen dinamika propioa martxan jartzeaz arduratu behar garela uste osoa daukat, Estatuaren posizioak mugiaraziko dituen oso estrategia korapilatsuak garatzeaz baino. Askapenerako gure estrategiak nahitaez Estatuarekin itunak lortzean oinarritzen badira, ez da akordioarik egongo, ezta askapenik ere. Horrek era guztietako akordioak ukatzen ditugula esan nahi du? Inondik inora ez. Gure bide-orri propioa marraztean datza, akordioak lortzeaz edo ez lortzeaz arduratu gabe.

Euskal Herrian bizitako gatazkatik zein ikasketa atera litezke?

Nire ustez, iraultzaileok etika iraultzailearen printzipio batean ainguratu behar dugu geure posizioa. Iraultza batek, aukera minimorik bada, norberaren nahiz aurkariaren lerroetan kosturik txikienak –giza zentzuan– dakartzan bidea aukeratu behar du.

Diskurtso ofizialak indarkeria bakar bat aipatzen du...

Diskurtsoak ez dira neutralak, aitzitik, eraikuntza ideologikoak dira. Indarkeria mota bakar baten existentziaren diskurtsoak, indarkeria bati zilegitasuna kentzeko helburua du (ETArena kasu honetan) eta beste bat zilegitzat jotzekoa, Estatuarena, agerikoa denez. Zentzu horretan, argudio horiei jarraiki, gatazkarik ez dela existitzen proiektatu beharra dago –ahalik eta zabalen eta xaloen–, eta ondorioz, ETaren borroka armatua arazo kriminala edota antiterrorista hutsera murriztu liteke. Hortaz, ETako militanteek euren antolakundean ez lukete inongo motibazio politikorik izango. Horrez gain, errepresioaren erabilera erabat justifikatuta egongo litzateke, segurtasun publikoko afera izanik, horren erantzuna errepresio juridiko eta polizialek artikulatu beharko litzateke.

teke, inolaz ere ez bide politiko eta demokratikoetatik.

Zein da ezker abertzalearen kontakizuna?

Egun, kontakizunaren afera, Estatuarentzat zein 78ko erregimena sostengatu duten kastako alderdien-tzat —espainiarrak nahiz euskaldunak— berebiziko garrantzia duen borroka ideologikoa da. Borroka ideologiko hori arropa etikoarekin estali nahi da, baina nire ustez, helburu politiko argia dauka: ezker abertzaleak publikoki onar dezala —inkisizioaren fokupean jarrita— bere ibilbide historiko guztia huts handia izan dela, horrek euskal jendartearen begietan etorkizunerako alternatiba gisa ezgaituko baititu. Gure erruduntasunaren onartzea bilatu baino, euren errugabetasuna egiaztatu nahi dute, eta hainbat eta hainbat giza eskubideren bortxaketan euren erantzukizun eza: guda zikinetik torturara, egin dituzten eskubide zibil eta politiko guztien lege hausteak kontuan izanik. Guk defendatzen dugun kontakizuna laburbiltzeko, Antonio Machado-rengana joko dut, haxe zioenean: “Egia zatitutako ispilua da, inorena osorik ez dena. Nire egia? Ez, zure egia? Ezta ere. Batu ditzagun eta bi biok egia puska handiagoa izango dugu”. Guk, espiritu horrekintxe, kontakizun anitza defendatzen dugu, inklusiboa eta egia zati bakar bat ere baztertuko ez duena.

Noizbait ETaren biktimaren batekin elkartu al zara?

Bai, katalan batzuekin, baita Euskal Herriko batzuekin ere. Behin edo behin esan dut —eta berriz errepikatuko dut— ezinbestekoa zera da, biktimez hitz egitea baino haiekin egotea. Dialogo argi eta zintzo hori, jarrera eskuzabala eta eraikitzailea erakusten ari diren sektoreekin hasi beharko litzateke, memoriaz, konponbideaz eta [hutsak] berriro ez errepikatzeaz, akordioen zerumuga bilatuz.

Memoria, errekonozimendua, konponbidea, berriro ez errepikatzea. Posible al da eragindako oinazeak konpontzea?

Gisa honetako aferei buruz aritzean



JON URBE

“Trantsizioaren eta 78ko Konstituzioaren inguruko diagnosirik egokiena ezker abertzaleak egin zuen”

oso zintzoak izan behar gara: ez dago konponbide nahikorik konfrontazio armatuko garaietan bizitza galdu zuten horientzat. Baina posible da orde, eragindako oinazea onartzea eta berriz gerta dadila ekiditea. Azken hausnarketa gehitu nahi dut: eragindako oinazearen zati batean gure erantzukizunari dago-kionez, ez dago —eta ez da etorkizun-ean egongo— gure kontzientzia adinako epaile zorrotzik.

Bake prozesuari dagokionez, marko negoziatzailerik ba al da gaurkotasun-ean?

Elgoibarren manifestazio ugari egin dira Otegiaren askatasuna eskatzeko.

Ez da, eta ez da egongo. Estatuak ez du ziklo bat gainditzeko inolako interesik, hain zuzen ere zabalik mantendu nahi du, enbido honetan asko jokatzeko baitu. Euskal Herrian ez da bake prozesurik existitzen, existitu dadin ezinbesteko baldintza baita bi aldeek hura garatzeko borondatea eta interesa izan deza-ten.

Rajoyen aburuz presoek birgizartera-tze prozesua gehien eragozten duena ETA da...

Einsteinek behin esan zuen talen-tuaren eta inozokeriaren arteko aldea dela talentuak mugak dituela.

Presoen afera beti dago indarrean. Posible eta desiragarria al da amnis-tia, hainbesteko oinazea dagoenean? Aurrez gogoeta egin dezagun.



2008 abuztuan Martuteneko kartzelatik ateratzeko unean, 15 hilabete preso pasa ondoren.

Egun, euskal preso independentistak Estatuaren bahituak gara, zeinak gure instrumentalizazioaren bidez oinarritzko hiru helburu bilatzen dituen. Aurrez aurkitzen zen agertokia iraunarazi nahi du (ETA bere presoekin). Gure herriaren baitan desilusia eta frustrazioa eragin nahi ditu (gu kartzelan mantenduz, espetxe-politika aldatu gabe). Azkenik, Estatuak uste du afera hau konpondu artean eta bere eskuetan gauzkan bitartean, Euskal Herriak ez duela aldebakarreko burujabetza prozesurik ekingo. Egoera honen aurrean, independentistok posizio argia finkatu behar dugu: euskal preso eta errefuxiatu independentista guzti-guztiok geure askatasuna berreskuratu behar dugu, geure etxeetara eta geure herrira itzuliz. Horrek ezin du truke politikorako merkantzia izan, horrek ez du esan nahi prozesu gradual batez hitz egingen ari ez garenik. Nire aburuz, preso-en askatasunaren aferaren asetzera bideratutako estrategia, aldebakarreko burujabetza prozesua martxan jartzeko baldintzak sortzetik hasi behar da. Estatuari mezu argia bidaltzean datza: *babike-tek* ez dute prozesua martxan jartzea galaraziko. Bestalde, herri-

“Indarkeriarik gabe den dena posible dela? Leloa izatez zer zen agerian gelditu da: benetako gezurra”

burujabetzarako ofentsiba prozesuari lotuta, nazioarteko komunitatearekin eta Euskal Herriko eragileen arteko itunak eraginkor bilakatu behar dira, herri presioa geure askatasunaren alde erakartzeko. Azkenik, aldebakartasuna erabiliz, euren legedia erabili behar dugu Estatuaren posizioa ahultzeko. Estatuarentzat ez da min handiagorik, bere legedia urratzen duela ikusaraztea baino.

ETAk bere desagitea iragarri behar du? Noiz?

Ez dut zalantza izpirik ETAk euskal agertoki politikotik desagertzeko borondatea duela, gatazkaren ondorioak gaingidzearekin batera. Behin hori esanda, gogoratu dezagun zein izan den Estatuaren jarrera gai horren inguruan: ETAk lehenengo armagabetze keinua egin zuenean, nazioarteko bitartekariak Auzitegi-

Nazionalera deitu zituzten; duela bi hilabete euren hitzen arabera armagabetzearen “arduradunak” atxilotu zituen polizia operazioa burutu zuen; estrategia aldaketa planteatzean atxilotu eta kartzelaratu egin gintuzten. Sinets nazazue Estatuak ETAren amaieran eta armagabetzean inolako interesik ez duela badiotsuet, eta ahalegin guztiak egingo ditu galarazteko.

Gaur egun, askapen soziala zertan datza?

Burujabetza politiko eta ekonomikoak berreskuratu behar ditugu, eta horiek guztiak mundu mailako aliantza bidez martxan jarri (politikoa, ekonomikoa, etikoa, ekologikoa). Aldaketa sozialerako agenda nazional eta globalak nahitaez hurrengo ardatzak txertatu behar ditu: aldaketa klimatikoaren aurrean giza generoaren eta planetaren bizirautea; armagabetze nuklearraren eta bakearen aldeko borroka; herrien autodeterminazioaren aldeko borroka; aberastunaren banaketa justuaren aldeko borroka; eta eredu patriarkala gaingidtzeko borroka. Borroka horiek nahitaez antikapitalistak dira, eta Herrien Internazional berri baten bidez planeta mailako koordinazio espazio bat aurkitu eta eraiki behar dute.

Posible al da hori, troikaren Europar Batasunaren barruan?

Eguno Europar Batasunaren barruan ez da posible. Eta horren ondorengo galdera da: aldatu edota erreformatu al liteke egitura hori, Alemaniako oligarkia buru duen dominaziorako proiektu gisa sortua izan dena? Greziako esperientziak emaitza begi-bistan uzten du.

Zein antolakuntza eredu nahiko zenuke? Zein motatako ezkerria?

Zertarako balio du politika berria planteatzeak, ekonomia berria edota etika berria, antolakunde zaharrak eta funtzionatzeko molde zaharrak eraikitzen jarraitzen badu-

IMANOL OTEGI



Ezker abertzalearen prentsurrekoa 2009an. Otegiren alboetan Harkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta, Bateragune auzikoak eta hilaren 11n libre geratutakoak.

gu? Zertarako balio du printzipio berri/zaharrak planteatzek gure eguneroko bizitzan ez badute isla beharrezko eta koherenterik? Gure antolakundea eta gure bizitza –militantea eta pertsonala– ordezkatzen eta defendatzen dugun alternatibaren isla leiala izan behar dira. Ez baita aldaketa sozialik gure baitan hasten ez denik.

Espainiako Estatuak baimenduko al du Arnaldo Otegi lehendakartzarako hautagaia izatea?

Euskal independentismoaren baitan arazoen eta lehentasunen zerrenda bat egingo bagenu, azkeneko arazo eta lehentasuna izango litzateke Arnaldo Otegi lehendakartzarako hautagaia izango den edo ez jakitea. Gauza bat ziurtatuko dizut: nire aburuz, lehendakari izan direnek harro egon behar dute hala izan direlako (Patxi Lópezen kasuan nabardurekin, hautesleen zati

garrantzitsu baten mutilazioaren ostean hartu baitzuen kargua). Ziurtatzen dizut, Estatuan gaitzespen handiena sortzen duen lehendakartzarako hautagaia ni izatea litzatekeela gehien poztuko eta harro sentiaraziko nindukeena. Galarazteko asmoz neurri guztiak hartuko lituzketela jakitea ohorea da independentista batentzat. Eta ohore hori nahikoa sari da niretzat.

Beti diozun gisan, “irribarre egiteko arrazoiak ditugu, irabaziko dugula-ko”?

Artur Mas irribarrean iraultzari buruz hitz egiten entzun dut eta Pablo Iglesias Kortatu aipatzen. Eta hilaren 27an independentismo katalanaren gehiengo absolutua egongo da. Zalantza barik, irribarre egiteko arrazoiak ditugu. Borrokatu egingo baitugu, eta irabazi egingo baitugu –eta batik bat–, tristeak izateko, nahikoa dugu eurekin. ■

Bi hitzetan

Gertaera historiko bat?

Euskal Estatu nafarraren defentsa Amaiurren, 1522an (laster 500 urte beteko dira, urtemuga zinez ederra).

(Gizonezko) erreferente politikorik?

Gerry Adams, Antonio Gramsci.

(Emakumezko) erreferente politikorik?

Rosa Luxemburg, Rosa Parks.

Liburu bat?

Joseba Sarrionaindiaren *Moroak gara behe-laino artean?*, Leonardo Paduraren *El hombre que amaba los perros* (zinez gomendagarria).

Film bat?

Avatar. Novecento.

Abesti bat?

Leonard Cohenen *The Partisan*. Kortaturen *Hotel Monbar*.

Esaldi gogoangarririk?

“Maitagarrien ipuinak ez dira egiazkoak dragoiak existitzen direla azaltzen digutelako bakarrik, baizik eta garaitu litezkeela adierazten digutelako”. (G.K. Chesterton)

Elkarrizketa osoa: www.argaia.eus

souvenirs
arkupe
delikatessen

SOUVENIRS
izaro
delikatessen

EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

